

# Aberri Eguna

+

Esplotazioaren aurkako eguna

=

# Maiatzak 1

12:00 Eztabaida

+

14:00 Herri Jantegia

+

15:00 Bertsolerkiak

+

17:00 Ereitea

=

# Donibane Garazi maiatzak 1

**herriBiltza**

[www.herribiltza.eus](http://www.herribiltza.eus)

**euskara**  
+  
**esplotazio eza**  
+  
**burujabetasuna**  
=  
**aberria**

Bizkaiko golkoak, Auñamendik eta Aturri eta Ebro ibaiek inguratzen duten munduko lurraldean, duela milaka urte eta gaur arte **lagunarte** bat bizi izan da, hots **herri** bat, eta bere ezaugarri nabarmenena euskara izan da.

**Herri** euskaldun horrek, bere aurre-historian eta historia garai luzeenean, bere burua gobernatzeko erakunde burujabeak ukan zituen.

**Aberria**, milaka urte horietan gaur arte biziraun duen **herria** da.

Esplotazioa **laguntasunarekin** bateraezina denez, garai guzi horretan zehar **lagunarteko** langileak esplotatu dituzten euskaldunek, beren burua **herritik** kanpo ezarri dute.

Historian zehar, frantziar eta espainiar estatuen agintariak, bortizkeria handiz euskaldunen herria kolonizatu zuten, bere erakundeak desegin zituzten eta euskara zapaldu zuten.

Gaur egun kolonizazio horrek segitzen du, lurralde honetan diren gobernatzeko erakundeak ez dira euskaldunonak eta euskara desagertzeko bidean da.

**Abertzale** izatea, euskaraz mintzatzea da edota euskara ikastea da, langileen esplotazioaren aurka jardutea da, gure burua gobernatzeko erakunde burujabeak eraikitzea da, eta frantziar eta espainiar estatuen agintariak gauzatzen duten gure herriaren kolonizazioari aurre egitea da.

**Aberri Eguna**, **aberria** ospatzeko eguna da, hau da euskara, langileen esplotazio eza, gure burua gobernatzeko erakunde burujabeak eta gure herriaren erresistentzia ospatzea da.

Gipuzkoan, 2023ko apirilean  
herriBiltza  
[www.herribiltza.eus](http://www.herribiltza.eus)

### **Euskaltzaindiaren arabera:**

**Herria**, lagunartean eta lurralde jakin batean bizi diren, eta elkarrekin hainbat ohitura eta erakunde dituzten gizakien multzoa da.

**Lagunartea**, toki batean gertatzen diren lagunaren multzoa da, lagunekin izatea da eta laguntzea da.

**Ohitura**, herri edo gizatalde batean ohiko gertatzen den aritzeko modua edo egitea da, haren izaeraren edo kulturaren ezaugarri dena.

**Erakundea**, nazioak, bere burua gobernatzeko edo egiteko funtsezkoenak bideratzeko, eratzen dituen elkarte nagusietako bakoitza da.

**Nazioa**, bere batasunaren ezagutza eta elkarrekin bizitzeko nahia ezaugarritzat dituen gizataldea da.

**Aberria**, Sabino Arana Goirik XIX. mendearen amaieran sortutako neologismoa da, oinarrian aba (hemen asabaren esanahiarekin erabilia) eta (h)erri hitzak dituena.

**Asabak**, aitona-amonez gorako aurrekoak dira, arbasoak dira.

**Abertzalea**, aberria maite duena da, aberriaren alde borrokatzen dena da. Sabino Arana Goirik 1896an sortutako neologismoa da, oinarrian aberri eta zale hitzak dituena.

**Borroka**, indarrezko ahalegina da, norbaitek beste norbaiti buru (aurre) egiteko egiten duena.